

Teniente koronel baten semea hil da Madrilen izandako atentatuan

Aitaren autoa martxan ipintzean lehertu zen azpian jarritako bomba

Espainiako Armadako teniente koronel baten semea hil zen atzo Madrilen izandako atentatuan. Kotxe azpian jarritako lehergailuak goizeko bederatzia eta bostean egin zuen eztanda, Juan Jose Carrascok ibilgailua martxan jartzerakoan.

MADRIL

Eztandak zauri larriak eragin zizkion gazteari zango eta sabelaldean. Berauen ondorioz anbulantzian Doce de Octubre ospitalera zeramatatela hil zen.

Atentatuan erabilitako lehergailua 'lapa' motakoa da, autoaren azpiari iman baten bidez atxikitzen zaiona. Artikulua idazteko unean oraindik zehazteke zegoen zenbat eta zein motatako leherkaria zeukan.

ETari leporatzen zaion atentatu hau Madrileko Puente de Segovia eta Saavedra Fajardo kaleen gurutzean gertatu zen, Paseo de la Ermita del Santo-n dagoen militarrentzako etxebizitzetatik oso hurbil eta bestetan ere atentatuak izan diren aldean.

Gaztea gidatzera zihoan Citroen AX gorria, M-3967-IP matrikuladuna, aparkatuta zegoen eztanda egiteko unean. Hildakoaren lehengusu batek ospitalean adierazi zuenez, kotxea Felix Carrasco Infanteriako teniente koronel erretiratuarena zen baina normalean ez zuen erabiltzen eta horregatik semeak gi-



Citroen AX kotxea erantsita zuen lehergailuak eztanda egin ondoren.

EFE

datzen zuen. Juan Jose Carrasco bizi zen etxeko atezaina atentatuaren lekuko izan zen eta azaldu zuenaren arabera, gaztea etetik atera eta handik gutxira eztanda bat entzun zuen.

Ondoren, Juan Jose Carrasco gaztearen gorputza odoletan ikusi zuen, alde baterantz ahozpeztanda eta konortea galdu gabe.

Polizia etorri zenean atezaina etxera itzuli zen eta Felix Carrasco teniente koronela hurbildu zitzaola, anbulantzian zeramaten pertsona bere semea zela aitortu

behar izan zion, beti ere lekuko honen adierazpenei jaramon eginda.

Ospitaleko zuzendariak aditzera eman zuenez, gaztea eritxera heldu baino lehen hil zen, zauriek eragindako bihotz gelditzearen odorioa, zainketa berezietarako unitatean bere onera ekartzeko ahaleginak egin bazituzten ere.

Doce de Octubre ospitaleko iturri berberen arabera, hildakoaren aita, Felix Carrasco, bertara joan zen bere semearen osasun egoeraz jabetzeko eta ja-

rraian polizi patruila batek etxera eraman behar izan zuen. Gorpua ospitaletik Institutu Anatomico-Forensera eraman zuten autopsia egiteko.

Juan Jose Carrascok 26 urte zituen eta Ekonomia ikasketak bukatu berriak zituen. Bost anaia ziren familian eta horietako bat Armadan sartua zegoen, baina ez ordea hildakoa.

Atentatua izan eta lasterrera Jose Maria Alvarez de Manzanao Madrileko alkatea eta beste zenbait pertsonalitate hurreratu ziren.

ETAk Valenciako polizien aurka iharduteko asmoa zeukan

VALENCIA

Estatuko Segurtasun Indarretako partaideak, enpresariak eta izenak ezagutzera eman ez diren Valenciako jende ospetsuak ziren, besteak beste, ETAk hurrengo atentatueterako helburutzat hartutakoak. Hala diote atzo Poliziak Valencian aurkitutako etxean zeuden paperek, iturri judizialek aditzera eman zuten.

Ustez Rosario Delgado Iriondo eta Juan Jesus Narvaez Goñik erabiltzen zuten pisuan armak, lehergailuak, leherkariak, hainbat agiri eta ETAko komandoaren helburuak izan zitezkeen zerrenda aurkitu zuen Poliziak, atzo Francisco Granados Estatuaren ordezkariak Valenciako Komunitatean ziurtatu zuenez.

Bilbon atxilotuak gartzeleratu egin ditu epaileak

MADRIL

Entzutegi Nazionalako goardiako epailearen aginduz, gartzelaratu egin dituzte joan den asteazkenean Polizia Nazionalak Bilbon atxilotu zituzten sei pertsonak, ustez ETAko Mugarri komandoko partaideak eta laguntzaileak izatea egotzita.

Iñaki Rekarte eta Luis Galarzari Mugarri komandoko partaideak eta ETAko liberatuak izatea leporatu die Polizia Nazionalak. Jokin Nuñez, Ramon Aldaña, Ana Isabel Morante eta Idoina Zamakonelari, berriz, Asturiasean eta Cantabriaran ihardutea leporatzen zaion komandoko laguntzaileak izatea egotzen diete.

De la Quadra: «Ez da negoziatorik egongo, etengabeko borroka baizik»

DONOSTIA

«Ez da negoziatorik egongo terroristekin, etengabeko borroka baizik» adierazi zuen atzo Tomas de la Quadra Espainiako Justizia ministroak Sevillan. «Sueten edo antzeko posibleaz ez zait gainera inolako ilusiorik piztu» gaineratu zuen. De la Quadra iritzian, ETAk «oso estrategia zehatza dauka 92an eta bere aurkako borrokan jarrerak tinkoa, tematsua eta gogorra» izan behar du. «Beraz —erantsi zuen— ez da txantaiaren aurrean makurtu behar, ezta Segurtasun Indarren eta alderdi politikoen ahaleginetatik ez datorren ilusioetan sinestu behar».

PSOEk «gaitzpenik latzena» adierazi zuen atzo Madrilen izan zen atentatua dela eta, eta berretsi egin zuen ezin dela «elkarriket-

✓ ETaren kontrako estrategian «karta guztiakin jokatzera» leporatu zion PPk Gobernuari.

tarik egon, ez talde terroristekin ezta lagundu eta justifikatzen dutenekin ere».

Atzo igorritako oharrean PSOE Ajuria Eneako eta Madrileko Itunei lotu zitzaizen, berauek zehaztutako bidea «ETAko terroristak isolatzen segitzeko zuzenena eta eraginkorrena» dela argudiatuta. Herritarrei laguntza eskatu zien, Poliziari ETaren aurka borrokatzen lagun diezaioten.

ETaren kontrako estrategian

«karta guztiakin jokatzera» leporatu zion PPk Gobernuari. «Azken urteotan ez da horrelako nahasmendu girorik egon» adierazi zuen Rodrigo Rato PPko bozeramaleak. «ETAren ekintzarako gaitasuna handiagotu egin dela eta», PPrek kezka agertu zuen. «Azkenaldian gainera, Gobernutik eta PSOEtik urrun egon ez diren gertaerak izan dira, eta horrek nahasmendua baino ez du ekarri herritarren artean» esan zuen Rato.

EEK atzo igorritako oharrean HBko «inguruko» dei egin zien ETaren atentatuak gaitzetsi ditzaten, «jendaurrean ez gaitzestean, isiltasunaz basakeria honi babesa ematen diotelako», oharrean arabera. Garraixi Ixila elkarteak 116 kontzentrazioarako dei egin du biharko, Madrileko atentatua gaitzesteko.

Goardia Zibilak bi pertsona atxilotu zituen atzo Irunen

DONOSTIA

Ustez ETaren laguntzaile izateagatik, bi pertsona atxilotu zituen atzo goizaldean Goardia Zibilak Irunen. Ignacio Gabriel Txintxurreta, hogeitabi urtekoa eta Francisco Antolin Alvarez, hogeitahirukoa, dira atxilotutakoak. Mugarri izeneko ETAko informazio komandoa osatzea leporatzen diete iturri polizialek.

Madrileko Entzutegi Nazionalaren aginduz atxilotu zituzten Irungo beren etxeetan, goizaldeko ordu bi terdiak eta goizeko zazpiak laurden gutxiagotan. Ignacio Gabriel Txintxurreta atxilotu zutenean honen anaia ere eraman zuen Goardia Zibilak, baina handik ordu batzutura libre utzi zuten. Txintxurreta eta Antolin Madrileko Goardia Zibilaren Zuzendaritza Nagusira eraman zituzten atzo bertan.

1986 eta 1987. urteetan aipatutako informazio komandoan aritu zirela biak diote polizi iturriek, eta Juan Ramon Rojo Gonzalez, ustez Bizkaia komandoko kidea eta Jose Ramon Goñi ere taldekoak izan zirela.

Aipatutako iturrien arabera, 1987. urteko irailean Santiago Arrospeide, 'Santi Potros', atxilotu ondoren ez zuen gehiago funtzionatu talde honek eta komando 'legal' bat osatu zuten Antolin Alvarez, Goñi eta Rojok. Donostia komandoaren laguntzaile modura. Ignacio Rekarte, ustez Mugarri komandoko kide izatagatik joan den astean Bilbon atxilotu zutena ere taldekidea zela diote eta Antolin Alvarez, berriz, taldetik kanpora geratu zela atentatuetan parte hartu gabe. Santandarren bomba-kotxez egindako atentatua leporatu die Poliziak.